«DEUSTO» SENIDE ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE FAMILIAS «DEUSTO»
asociacionfamiliasdeusto.com

Familia estimatuak:

Aurten bidaltzen dizuegun azken komunikazioa denez, aukera baliatu nahi dugu **Eguberri on** opatzeko eta, nola ez, **2027 urte oparoa**.

Egun hauek eman diezazkigutela: elkarrekin egoteko denbora, besarkada zintzoak eta gehien maite ditugunekin mahaia eta bizitza partekatzeko poza.

Jarraian, datozen asteetarako antolatutako Jarduerei buruzko informazioa ematen dizuegu.

❖ KONTZERTUAK

Abenduaren 4an (ostirala) 20:00etan
"Orfeón San Antón" Abesbatza, Alfredo Hurtado de Saratxo zuzentzen duena

Abenduaren 26an (larunbata) 20:00etan

"San Antonio de Iralabarri" Abesbatza, Maite Zugazaga zuzentzen duena. (Kontzertuaren *erdian diru-bilketa bat egingo dugu, Parrokiak Alto Trujillon (Perun) babesten duen proiektu baterako*) *Egitarauak eskuz banatuko dira emanaldi bakoitzaren hasieran, eta kontzertuak* ***Deustuko San Pedro Parrokian*** *izango dira****.***

❖ HITZALDIAK

Abenduaren 17an (osteguna) 19:00etan
Gaia: Unamuno: gizon baten neurria, haren bizitza, haren obra, haren nortasuna eta testigantza.
Hizlaria: Pablo Zapata Lerga. Idazlea eta Miguel de Unamunon obran ikertzailea.
Lekua: **Bidarteko Gizarte Etxea**.

Urtarrilaren 14an (osteguna) 19:00etan
Gaia: Ezagutzen al duzu *Batch Cooking*-a? Elikadura osasuntsua, eraginkorra eta antolatua.
Hizlaria: Ainhoa Guenaga Menéndez. Giza Nutrizioan eta Dietetikan graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).
Lekua: **Bidarteko Gizarte Etxea**.

❖ ZINEFORUMA

Urtarrilaren 28an (osteguna) 18:00etan
Filma: LOS DOMINGOS. Bilaketa ala deia?
Dinamizatzailea: Imanol Zubero Beaskoetxea, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle titularra.

❖ LARUNBATETAKO IBILTARIAK

Ibilbide hauek egingo dira, adierazitako egunetan:

Abenduaren 12an (larunbata) Ignazioren Bidea, 1go etapa: Loiola–Zumarraga.

Urtarrilaren 16an (larunbata) Euskal Kostaldeko Itsasargien Ibilbidea, etapa: Bakio - Bermeo. *Interesa dutenek Josean Perez-ekin jarri behar dute harremanetan (630 518 827)*

❖ IBILALDIAK eta MENDIA

Elkartearen webgunean argitaratuta daude bi jardueren 2026ko iraila-abendua bitarteko irteera programatuen egutegiak. *Interesa dutenek Maite-rekin (ibilaldiak) 656 71 94 07 eta Juan Muñoz-ekin (mendia) 685 72 36 06 jarri behar dute harremanetan.*

❖ SUKALDARITZA

Ikastaro berria (programa berberekin) egiteko epea irekita dago. **Otsailaren 2a eta 16a** eta **Martxoaren 2a eta 16a** izango dira hurrengo datak. 120€ ordaindu beharko ikastaro osorako.

Jaione (620 96 70 22) eta Txelu (665 94 68 91) jarri behar dute harremanetan.

❖ BISITA KULTURALAK

Abenduaren 9an (asteazkena) 17:00etan

Itsasmuseum-era bisita gidatua (Itsas Museoa). “La Naval, cantera de titanes” erakusketa ikusiko dugu.

Interesa dutenek Marisa-rekin (619 053 685) edo Maria Asunekin (687 975 002) jarri behar dute harremanetan.

Bilbon, 2026ko azaroaren 17ean

Presidentea

Jorge Herrera Torres